


# OROTIDAZKIA



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**



Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa  
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3. solairua  
01008 - VITORIA-GASTEIZ  
[avpd@avpd.es](mailto:avpd@avpd.es)  
[www.avpd.es](http://www.avpd.es)

MEMORIA / OROITIDAZKIA  
ISSN: 2253-9506  
Aldizkakotasuna: urterokoa

**LG: VI 312-2006**

Lan hau Creative Commons-da



**Aitortu (cc by)**

Aske zara:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- Lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- **Aitortu** - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren duzunik edo haien obraren erabilera hori babesten dutenik).

**Informazio gehiago:** <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.eu>



## AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA .....	5
2.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	7
3.	AHOLKULARITZA EGINKIZUNA .....	9
4.	KONTROL EGINKIZUNA.....	23
5.	EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA.....	30
6.	DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK .....	36
7.	PRIBATUTASUNAREN KONTZEPTUAREN ETA DBEB-REN JARDUEREN ZABALKUNDEA.....	39
8.	ESPERIENTZIAK ETA IKASTAROAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN ETA BESTE ERAKUNDE BATZUETAN .....	46
9.	BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA .....	52
10.	BARNE KUDEAKETA.....	55
	DATU PERTSONALAK BABESTEKO ERREGISTROAREN ZIFRAK .....	69
	FITXATEGIEN MUGIMENDUEI BURUZKO DATUAK.....	70
	AHOLKULARITZA ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO ZIFRAK .....	80
	AURREKONTU EXEKUZIOARI BURUZKO DATUAK .....	82





## 1. AURKEZPENA

2012. urteko gertakaririk aipagarrienak Bulegoan egon diren aldaketen ondorioz etorritakoak izan dira.

Lehenengoa izan da neronen izendapena Bulegoaren zuzendari berria izateko 2012ko maiatzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzaren Kontseiluak proposatu ostean.

Eta bigarrena izan da, aurrekoa baino garrantzitsuagoa bestalde, Bulegoko zenbait lanpostutan zeuden pertsonak aldatu izana, arrazoi bat edo beste tarteko, administrazioko beste lanpostu batzuetara joatea erabaki dutelako.

Aldaketa horiek eta gure erkidegoan esparru sozioekonomikoan gertatutako beste kontu batzuez gain, datu babesaren arloan hainbat gertakarik arrasto berezia utzi dute 2012an.

Bulegoaren funtzionamenduari dagokionez, datu babesaren inguruan herritarrei orokorrean ematen zaien aholkularitza eta asistentziarekin zer ikusia duen oro da bereziki nabarmentzekoa. Nik neuk uste dut herritarrari laguntzea, arreta eskaintzea, eta aholkularitza eta asistentzia ematea izan behar direla erakunde honek burutzen dituen jarduera guzti-guztien eduki eta mamia. Ez dugu ahaztu behar eskubide konstituzional baten ekintza esparrua dela gurea, eta pertsona fisikoak diren herritarren oinarrizko eskubide bat dela, guk zaindu eta babestu behar duguna. Gainera, herritarrari kontrol agintari batera jotzeko aukera aitortzen dion eskubide bakarra da.

Egun, Europako Parlamentuan planteatzen eta eztabaidatzen ari diren erreformak, erabat sendotuko du kontrol agintaritza-erakundearen zeregina; aldi berean kontrol agintaritzen ikuskaritza gaitasuna eta zehapen eskumenak berretsiz; eta horiek denek eratuko dute, agintaritzen independentziarekin batera, erakunde hauen funtzionamenduaren ardatza. Erreformak inflexio-puntua ekarriko dio Europako datu babesari; izan ere, azken zirriborroek hainbat alderdi berri planteatzen baitituzte, adibidez, datu babesaren filosofia aldatzea, ez dadin egon hain lotuta fitxategiaren kontzeptuari; edo ahazteko eskubidea bera planteatzea, esate baterako.

Bulegoa sortzeko Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea onartu ondoren, 2004an Bulegoa sortu zen unetik bertatik, independentzia izan da erakunde honen ikur nagusia, eta hala izango da aurrerantzean ere.

Legea onartu zeneko hamar urte beteko dira 2014an, eta orain artekoari buruzko balorazioa egiteko eta erakundearen eta oro har datu babesaren etorkizunari heltzeko unea izango da.

Erakundeak, orain arte bezala, herritarrei laguntzeko eskaintzen duen laguntza ematen jarraitu nahi du, gure jarduera-esparrukoa eta eskumeneko den edozein zalantza planteatzen duen edonori telefono bidez edo posta elektronikoko bidez



aholkularitza emanaz. Esan behar dugu 2012an azken urteetako ildoak mantendu dela, eta helarazi dizkiguten berrogei kontsulta formal ebatzi ditugula. Era berean, beste hainbat kontu argitu dizkiegu modu ez formalean ere, telefono bidez edo bertara etorri direlako galdezka, herritarrei eta erakunde publikoei, azken horiei batez ere. Administrazioen arteko lankidetzak hitzarmen iraunkor bat ere ari gara sustatzen, etorkizunean sendotzeko asmoarekin, administrazioei aukera emateko, modu informalean eta bileren bitartez edo telefono bidez, eguneroko funtzionamenduan oinarritzko eskubidean edo izaera orokorreko arauen onarpenean eragina duten kontuei buruzko kontsultak egiteko. Uste dugu horrela asistentzia hobea ematen dela, eta oro har administrazio publikoen funtzionamendua ere hobea dela.

2012an egindako irizpenen artean badira hainbat aipatzea merezi dutenak, adibidez, udal errolda beste helburu batzuetarako erabiltzeari edo lagatzeari buruz egindakoa, edo Lanbideren eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen arteko datu lagatzei buruz egindakoa, informazioa trukatzeko elkarren artean.

Bestalde, Bulegoak hasitako administrazio prozedurei dagokienez, aipagarria da % 150 igo direla babes prozedurak, eta onetsien indizea osoa altua izan dela. Bulegoan 52 salaketa aurkeztu dituzte, eta administrazio publikoen aurkako 22 prozedura hasi ditugu. Azpimarratzekoak dira udalek jarritako bideo kamerak direla-eta hasitako prozedurak edo hainbat eratako lagatzeak egiteagatik hasitakoak.

Beraz, ideiak argi ditugu, eta herritar orori zuzentzen gatzazkio, gehiago eta hobeto ezagutu ditzaten euren eskubideak; bai eta administrazio publikoei ere, oinarritzko eskubide hau ezarri eta hobeto babes dezaten.

Orain arte egindakoa ikusita, emaitza bikaina da, eta espero dugu aurrerantzean ere hala izatea, Bulegoko langile guztiok hala izan dadin ahaleginduz.

Iñaki Pariente de Prada,

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria.



## 2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 14., 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitako Kontseilu Aholku-emailea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu organo bat da, eta zuzendariari aholku ematea du xede.

Erakunde hauek ordezkaritza dute Kontseilu Aholku-emailean: Eusko Legebiltzarra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoak, euskal toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

### 2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN OSAERA

Hona 2012ko abenduaren 31n Kontseilu Aholku-emaileak zituen kideak, 2/2004 Legearen 16. artikulua araberak:

<b><i>Iñaki Esparza Leibar jauna</i></b>	Lehendakaria. Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Oinarrizko Eskubideen Esparrua. Euskal Herriko Unibertsitatea
<b><i>Montserrat Auzmendi del Solar andrea</i></b>	Eusko Legebiltzarreko legelaria
<b><i>José Raimundo Cuesta Graña jauna</i></b>	Eusko Jaurlaritzako Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendaria.
<b><i>Javier Aguirre Busteros jauna</i></b>	Arabako Foru Aldundiko Informatika Zerbitzuko burua
<b><i>Ricardo Ituarte Aspiazua jauna</i></b>	Santurtziko Udaleko alkatea
<b><i>Eduardo Jacob Taquet jauna</i></b>	Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra. Informatika Arloa. Euskal Herriko Unibertsitatea
<b><i>Iñaki Pariente de Prada jauna</i></b>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria
<b><i>Nieves Mtz. De Antoñana andrea</i></b>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia.

Kontseiluaren lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, apirilera arte Iñaki Esparza Leibar jauna, Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkaria izan zen lehendakaria, eta, bere ordezkari, Montserrat Auzmendi del Solar andrea, Eusko Legebiltzarreko legelari nagusia izendatu zuten.



## 2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak ohiko bilera bi egi ditu: bata maiatzaren 16an eta bestea irailaren 19an.

Bileretan gai hauetaz hitz egin zuten:

### Maiatzaren 16ko bilera:

- Lehendakaritza berritzea.
- Kontseilu Aholku-emailearen kide bat berritzea: lurralde historikoen ordezkaria.
- Egoeraren txostena.
- Konpromisoa kalitatearekin. 2012-2015 Plangintza Estrategikoa.
- Datuak babesteko agentzien arteko lan taldeak.
- Langileak. Zerbitzu eginkizunen deialdiak.
- Aliantza Estrategikoak. Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin hitzarmena.
- Ekitaldiak.
- Prestakuntza.
- Sentsibilizazioa: DBEBren jarduerak komunikabideetan izan duen isla.
- Kontuen auditoria 2011.

### Irailaren 19ko bilera:

- Kontseilu Aholku-emaileko kide bat berritzea: EAEko administrazio orokorraren ordezkaria.
- Egoeraren txostena.
- Azterketa soziologikoa: "Datu pertsonalen babesa" eta "Oinarrizko Eskubideak Europar Batasunean".
- Konpromisoa kalitatearekin. 2012-2015 Plangintza Estrategikoa.
- Datuak babesteko agentzien arteko lan taldeak.
- Langileak. Zerbitzu eginkizunen deialdia eta lanpostu zerrenda berria Idazkaritza Nagusian eta Erregistro eta Teknologia Berrien Atalean.
- Aliantza Estrategikoak.
- Ekitaldiak.
- Sentsibilizazioa: DBEBren jarduerak komunikabideetan izan duen isla.
- Kontuen auditoria 2011.





### 3. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna betetzeko, administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek edo pertsona fisiko nahiz juridikoek Bulegoaren ezarpen esparruan dauden datu pertsonalen tratamenduei buruz egiten dizkioten galderei erantzun behar die.

Kontsultak idatziz, posta elektronikoz, faxez, telefonoz eta modu presentzialean egiten dira, eta oinarrizko eskubidearekin zer ikusi handia dutenak eta administrazioek eta herritarrek zenbait gairen inguruan Bulegoaren iritzia gainera erantzun formalak eskatzen duten alderdiak Bulegoaren irizpen bidez ebazten dira.

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna dela eta, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorren proiektuen gainera txostenak ere egin behar ditu nahitaez; bai eta administrazio publikoen iritzia menpe jartzen diren xedapen orokorren proiektuei, hitzarmenei eta bestelako tresna juridikoei buruzkoak ere. Hori guzti hori egiten da datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokitzen direla aztertzeko.

#### 3.1. IRIZPENAK

Egiten dizkiguten kontsultei idatziz erantzuten diegu, hala egin behar dela xedatzen baitu 2/2004 Legearen 17 n) artikulua. Bestalde, kontsultei erantzutea aholkularitza eginkizun bat denez, irizpen deitzen diegu. Datu pertsonalen babesaren inguruko gai jakin baten inguruan galderak egiten dituzten administrazioak eta pertsona pribatu, fisiko edo juridikoak dira irizpenen hartzaile zuzenak.

Hona hemen aholkularitza eginkizunaren ezaugarriak:

- Irizpen-eskaerek datu pertsonalen babesarekin lotutako gaiak buruzkoak izan behar dute, eta, bereziki, 2/2004 legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategiei buruzkoak.
- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburua den datu-tratamenduaren gainera deskribapena egin behar dela eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu behar dela.

2012an DBEBn 39 kontsulta jaso ditugu idatziz, eta guztira 37 ebatzi ditugu.



Egin dizkiguten kontsultak ikusita, argi dago euskal administrazio publikoak gehien kezkatzen dituen gaietako bat administrazio elektronikoaren ezarpenetik eratorritako datu pertsonalen tratamenduak direla. Erakunde askok jo dute Datuak Babesteko Euskal Bulegora, administrazioen artean bide telematikoen bidez egiten diren datu lagatzeen gaineko informazioa eskatzeko.

Eta horixe da, hain zuzen ere, hainbestetan aipatzen den elkarreragingarritasuna, e-Administrazioaren alderdirik garrantzitsuenak; eta horrek eragina du oinarriko eskubidean, datuak babesteko oinarriko printzipioak urratzeko arriskua asko handitzen duelako, batez ere, datuen kalitatearen printzipioa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ahalegina egin du euskal administrazio publikoei laguntzen, administrazioaren eraginkortasuna eta pribatutasunarekiko errespetua behar bezala uztartzeko irizpideak emanez.

### 3.1.1 Irizpen garrantzitsuenak

#### ▪ **ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKO BATEN EGOERA ERREGULARIZATZEKO PROZEDURA**

Enpresa-erakunde publikoaren datu pertsonalen fitxategiak titulartasun publikokoak dira, eta estatutuek esleitzen dizkieten ahal publikoen erabilerari lotuta daude.

Udal organismo autonomoa enpresa-erakunde publiko bihurtzeko erabakia, legezko tresna egokia da ukitutako fitxategien titulartasuna erregularizatzeko.

Forma juridikoa aldatzea berez ez da datu lagatzea, baina berdin-berdin bete behar da interesdunei informazioa emateko.

Aldaketa horiek denak burutzeko, erakunde publikoak DBEBri eskatu beharko dio, autodeklarazioak egiteko aplikazio informatikoa erabiliz, Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko ukitutako fitxategien titulartasun-aldaketa, horretarako, osoko bilkuraren akordioaren gaineko dokumentazioa eta IFK aldaketa aurkeztuz.

(CN11-023 Irizpena)

#### ▪ **GARRAIO ENPRESEN DIREKTORIAN DAUDEN GARRAIOLARI AUTONOMOEN DATUAK LAGATZEA**

Ez dator bat datu pertsonalak babesteari buruzko oinarriko eskubidearekin kontsultan aipatzen den fitxategi-direktoriotik datozen pertsona fisikoen datuak eskatzen dituzten eskaera era zabalean erantzutea, datuak langile autonomoei buruzkoa direla ikusita.



Informazioa lagatzeko, kasuz kasu aztertu beharko dira eskaerak, irizpenean zehaztutako irizpideak kontuan hartuta, eta zalantzarik izanez gero, eskaera ukatu egingo da.

Irizpide horiek ezartzeko, DBLOren 4. artikuluan jasotako helburuaren printzipioa hartu beharko da kontuan.

([CN11-035](#) (pdf, 52 Kb) Irizpena)

#### ▪ **KARGU PUBLIKOEI DATUAK LAGATZEA**

Hileko ebazpenen zerrenda udaleko kargu publikoei ematea, datu pertsonal eta guztiz, ez da jardunbide egokia datu babesari dagokionez, gerta daitekeelako DBLOren hainbat oinarritzko printzipio urratzea.

([CN11-036](#) (pdf, 63 Kb) Irizpena)

#### ▪ **KOMUNIKAZIO FITXATEGIEI EZARRI BEHARREKO SEGURTASUN MAILA**

Fitxategien helburuari erreparatuz gero, ez dute goi-mailako segurtasunik behar.

([CN11-037](#) (pdf, 38 Kb) Irizpena)

#### ▪ **ZERGA HELBURUA DUTEN PROIEKTU TEKNIKOETAN DAUDEN DATUEN TRATAMENDUA**

Zerga arloko helburua ez duten baina udal fitxategietan dauden zerga helburudun datuak tratatzen badira, irizpenean esaten denaren arabera, orduan bat etorriko da datu babesaren araudiarekin.

Zerga arloko kudeaketarekin zer ikusia duen zerbitzu bat emateko behar diren hainbat datu hirugarrenei atzitzen uzteak ez du datu babesaren arloko araudia urratuko, DBLOren 12. artikuluan xedatutako betekizunak betetzen badira.

([CN11-038](#) (pdf, 52 Kb) Irizpena)

#### ▪ **ELKARTE BATEKO BAZKIDEEN ZERRENDA ARGITARATZEA**

DBEBk ez du eskumenik kontsulta hau erantzuteko, Bulegoaren eginkizuna administrazio publikoen ardurapeko fitxategietan dauden datu pertsonalen tratamenduei buruzko eginkizun aholku-emailea eta kontrol eginkizuna egitea delako (Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal



Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 17. eta 2. artikuluen arabera).

(CN11-039 Irizpena)

▪ ***OTSAILAREN 25EKO 2/2004 LEGEAREN BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIKO DATU LAGATZEA***

EUSTATEk bigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren erroldako datu jakin batzuk EAEko administrazio orokorrari komunikatzea ez dago kontrajarrita datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin, bertan jasotako baldintzen arabera komunikatzen badira.

Populazioaren fitxategi edo erregistro horren helburu bakarra da EAEko administrazioaren organoak eta herritarrak harremanetan jartzea, herri-administrazio bakoitzaren aginpideetatik datozen harreman juridiko-administratiboak finkatzeko.

([CN11-040](#) (pdf, 50 Kb) Irizpena)

▪ ***BIZTANLEEN UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA UDALERRIKO MEMORIA BAT EGITEKO.***

Biztanleen Udal Erroldako datuak lagatzea kontsultan esaten den moduan, berez ez dator bat datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin; eta zilegi izateko, data jakin batzuetan jaio eta udalerrian bizi diren emakume eta gizon kopurua baino ezingo dira komunikatu, edo pertsona horien izen eta abizenak laga daitezke, baina pertsona horiek baimena eman badute eta informatuta badaude.

([CN11-041](#) (pdf, 37 Kb) Irizpena)

▪ ***IKASGELETAN IKASLEEN IRUDIAK GRABATZEA, IKERKETAK EGITEKO ASMOAREKIN***

Ikasgeletan irudiak grabatzea, disoziatu gabe, eta ikerketak egiteko asmoarekin, datu tratamendu bat da eta DBLOren menpe dago erabat. Gainera, hori egiteko, datuen titularren edo horien legezko ordezkarien baimen informatua beharko da nahitaez.

([CN12-002](#) (pdf, 43 Kb) Irizpena)



- ***HIRIGINTZA ARLOKO HERRI GALDEKETA BAT EGITEKO EA ERROLDA DATUAK ERABILTZEKO AUKERARIK DAGOEN ALA EZ***

Kontsulta-idazkia ikusita pentsatzekoa da kontsulta egin duen udalaren asmoa ez dela Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 71. artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikulua ezarritako moduko galdeketa egitea. Beraz, eta kontuan hartuta hirigintza arloko herri galdeketa oso zorrotz araututa daudela, Bulegoak irizten dio Biztanleen Udal Erroldako datuak erabili ahal direla herritarrei jakinarazteko legeak zein bide finkatzen dituen hirigintza kontuetan parte hartzeko, hau da, udalerriko hirigintza jardueretan parte hartzen laguntzeko, baina ez legean jasota ez dagoen parte hartze mota bat antolatzeko. Gainera, DBLOren arabera (6. 2 artikulua), administrazio publikoek euren eskumenen esparruko eginkizunak burutzeko baino ezi izango dituzte tratatu datu pertsonalak.

([CN12-003](#) (pdf, 47 Kb) Irizpena)

- ***DATUAK ARGITARATZEA DESJABETZE ESPEDIENTEAN***

Desjabetu beharreko ondasunak eta eskubideak argitaratzea nahitaezko desjabetzeen prozedurako izapide bat da, eta ez du zertan beti jaso desjabetutako ondasunaren jabearen helbideari buruzko datua, kontuan izanda askotan ez datozela bat desjabetua izan denaren helbidea eta desjabetu beharreko ondasunarena. Kontsulta egileak kasuz kasu egin beharko du ponderazioa.

([CN12-005](#) (pdf, 40 Kb) Irizpena)

- ***EZGAITUEN LANPOLTSA BATI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURATZEKO AUKERA***

Artxiboetan eta erregistroetan sartzeko kontu bat da, eta ez datu babesari buruzkoa. Hala ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du kontsulta egilea, erakunde publiko bateko lanpoltsetan dagoenez, baduela lanpoltsako gainontzeko pertsonen datuetan sartzea, eta horrek ez duela urratzen datu pertsonalak babesteari buruzko araudia, baldin eta datu horiek jakitea, (adibidez, zeinek dituen 45 urte baino gehiago edo zeinek duen ezgaitasunen bat), funtsezkoa bada lanpoltsak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzeko.



Baina ez da datu babesaren araudiaren araberakoa izango esatea zein den ezgaitasun maila eta ezgaitasunaren arrazoia, edo lanpoltsan daudenen intimitatea kaltetzen duen bestelako informazioa, batez ere, helburua lortzeko garrantzitsua ez bada.

([CN12-006](#) (pdf, 41 Kb) Irizpena)

▪ **UDALEKO FUNTZIONARIOEK LAN EGINDAKO APARTEKO ORDUEN ETA KOBRATUTAKO LASARIEN GAINEKO INFORMAZIOA ESKATUZ ZINEGOTZI BATEK EGINDAKO ESKAERA**

Zilegi da zinegotziari informazio hori ematea, hala xedatzen baitute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 77. artikulua eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 14. artikulua.

([CN12-007](#) (pdf, 43 Kb) Irizpena)

▪ **LANBIDE-REN ETA EAE-KO UDALEN ARTEKO DATU LAGATZEA**

LANBIDE eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen arteko hitzarmen baten zirriborroa jakinarazi digute, erakundeen artean informazioa trukatzeko, bakoitzak bere prestazioak eta zerbitzuak ahalik eta era eraginkorrean kudeatzeko asmoz.

Hitzarmenaren zirriborroan aurreikusitako tratamendu multzoak argi eta garbi ukitzen dute datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea. Gainera, oinarrizko eskubidearen ikuspegitik ikusita, tratamendu horiek datu komunikazio eta lagapenak dira, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren —aurrerantzean BDLO— 3 i) artikulua xedatzen duen definizioaren arabera: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”*.

Hitzarmenaren zirriborroak hainbat datu tratamendu aurreikusten ditu, eta bi multzotan bereizten ditu: tratamendu batzuk, jarduneko administrazioek, esleituta dituzten eskumenak gauzatzeko, eman beharreko prestazio eta zerbitzuak kudeatzeko bildutako datuei ukitzen diete —DBE (diru-sarrerak bermatzeko errenta) eta EGPO (Etxebizitza-prestazio Osagarria)—. Beste datu tratamenduen xedea da biztanleen udal errolda kudeatzea.

Lehenengo kasuan, herritarrak erabakitzen badu administrazioak lehendik dituen dokumenturik ez aurkezteko eskubideaz baliatzea, Herritarrak Zerbitzu Publikoetara Era Elektronikoa Heltzeari buruzko 11/2007 Legearen 6.2.b) artikulua araberak jokatzeko, halakoetan herritarren adostasuna beharko da jarduneko administrazioak berak eman ahal izateko horiek eskuratzeko urratsak. Datu-bilketa hori datu-komunikazioa izango litzateke, baina datu pertsonalen babesaren ikuspuntutik ez du inolako arazorik sortzen, datuen titularrak ados dagoela adierazi duelako.



Herritarrak ez badu eskubide hori erabili nahi, eta berak aurkeztu nahi baditu eskatu dizkioten datuak eta agiriak, eta administrazioak uste badu eskatutakoa emateko prozeduraren barruan datu eta agiri horiek egiaztatu egin behar dituela, halakoetan ukituaren adostasuna edo baimena beharko du, edo, bestela, lege baten gaikuntza edo babes. Prestazioa eman eta gero ere ukituaren baimena edo lege gaikuntza beharko da, jakiteko ea onuraduna izateko bete behar diren betekizunak betetzen diren ala ez.

Bestalde, erroldako datuak LANBIDEn lagatzea, lehen esandako prestazioak kudeatzeko, ondo ezkontzen da Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Proiektatutako hitzarmenaren arabera, LANBIDEk datu pertsonalak utziko dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, LANBIDEk lortzen ez duenean prestazioen eskatzaileei edo onuradunei euren etxebizitzetan jakinaraztea dena delako bere administrazio egintza, eta horrela lortu eguneratuta izatea udal erroldak. Helburu aldaketa hori legezkoa izateko, adostasuna edo baimena beharko da, ez baitago behar besteko lege gaikuntzarik.

(Irizpenak: [CN12-008](#) (pdf, 47 Kb), CN12-014, CN12-015, CN12-016, CN12-017 eta CN12-021)

#### ▪ **PROFESIONAL SANITARIOEN DATUEN ARGITALPENA**

Datu babesaren esparruko araudiarekin ondo ezkontzen da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Arabako Eskualdeko intranetean bertako profesionalen zerrenda bat argitaratzea, lan tokia antolatuta, eta bertan agertzea bakoitzaren izen-abizenak, lan tokia, kategoria eta, ardurarik izanez gero esleituta, zein ardura duen ere bai. Baina, informazio horixe bera edo beste batzuk web gune ireki batean argitaratzea edo erakundetik kanpoko hirugarrenek ikusteko moduko iragarki-ohol batean argitaratzea, ordea, ez da legearen printzipioen arabera datu tratamendua izango, irizpen honek adierazten duenez.

([CN12-009](#) (pdf, 44 Kb) Irizpena)



#### ▪ **ARTXIBO HISTORIKOETAN DAUDEN DOKUMENTUAK ATZITZEA**

Artxibo historikoetarako sarbideari buruzko egungo lege esparrua nahikoa konplexu eta nahasia da. Beraz, komeniko litzateke gaiari buruzko legedia berritzea, ezarri beharreko lege-erregimena argitzeko. Horrek asko lagunduko liekeelako artxibo historikoen kudeaketaz arduratzen direnei segurtasun juridiko handiagoz jokatzeko.

Artxibo historikoetan dauden dokumentuak atzitzeko, baldin eta dokumentuetan pertsonen intimitatea ukitzen duen informazioa bada, ukituaren berariazko baimena beharko da, ukitua bizirik bada.

Halako datuen tratamendua Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen printzipioen eta betebeharren menpe daude.

Dokumentazioa atzitu ahal izateko, komenigarria litzateke eskatzaileari eskatzea ukitua hilda dagoela egiaztatzeko.

([CN12-010](#) (pdf, 61 Kb) Irizpena)

#### ▪ **ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA IKASTETXE PRIBATUEI**

Udalerrri bateko Biztanleen Udal Erroldako datuak ematea ikastetxe pribatu bati ez dator bat datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin.

(CN12-011 Irizpena)

#### ▪ **ZERGA ERROLDAK ARGITARATZEA**

Zerga arloko erroldak edo erregistroak jendaurrean jartzea ediktuen iragarki-oholean, edozein dela iragarki-ohol mota, fisikoa ala elektronikoa, eta hirugarrenek nahierara informazioa atzitzeko moduan egiten bada zabalkundea, hori ez da izango bateragarria datu babesaren arloko araudiarekin.

([CN12-012](#) (pdf, 38 Kb) Irizpena)

#### ▪ **ELKARGOKIDEEN DATU PERTSONALAK LAGATZEA**

Elkargoaren eta elkargokide izan nahi duten pertsonen edo elkargokideen arteko harremanak mantentzeko, garatzeko, gauzatzeko eta kontrolatzeko helburua duen fitxategiaren arduraduna elkargoa bera da.

Ez da datuen titularren baimenik beharko datuak Elkargoen Kontseilu Nagusiari lagatzeko, irizpenean esaten den bezala jokatzeko bada.





Datuen titularrei datuak lagatzeko asmoari buruzko informazioa emateko betebeharra du Elkargoak.

([CN12-013](#) (pdf, 58 Kb) Irizpena)

- **LANGILE PUBLIKO BATZUEI ALDI BATERAKO EZGAITASUNEI BURUZKO INSTRUKZIO BATEAN EZARRITAKO OSASUN DATUAK EMATEKO OBLIGAZIOA: MEDIKU PARTEAK ETA HITZORDUEN KUDEAKETA PREBENTZIO ZERBITZUAREKIN - LINEA 900.**

Osasun Sistema Nazionaleko mediku zerbitzuak eta kudeaketa erakundeei eta mutuei atxikitako medikuek baino ez dute ezgaitasun egoeren gaineko txostenak eta diagnostikoak atzitzeko ahala. Beraz, nekez onar daiteke enplegatzailerak datu horiek eskatzea hain zuzen ere ezgaitasun prestazio berari dagokion osagarria ordaintzeko.

([CN 12-019](#) (pdf, 69 Kb) Irizpena)

- **ATXILOTUTA DAUDEN PERTSONEI AHOKO FROTIS BIDEZ AND LAGINAK HARTZEA**

Poliziak atxilotutako pertsona bati ADN laginak hartzea ahoko frotis baten bidez, baina pertsona horren alde aurreko baimenik gabe eta pertsona horrek ondo ulertzeko moduko informaziorik eman gabe, eta Prozedura Kriminaleko Legearen eta 10/2007 Lege Organikoaren bermeak (adibidez, abokatuaren eta interpretearen laguntza) bete gabe, ez dator bat datu babesaren araudiarekin, arrazoitutako auto baten bidez eta epaiaren agindu bidez egin ezean.

(CN12-020 Irizpena)

- **UDALAREN KIROL ERAKUNDEAK BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN FITXATEGIA NAHIERARA ATZITZEA**

Udalaren Kirol Erakundeak ezin du Udalaren Biztanleen Udal Erroldan eta Sarreren eta Irteeren Erregistroan sarbide librea izan, hori ez datorrelako bat datu babesaren arloko araudiarekin.

([CN12-022](#) Irizpena)



- **ONDARE KAUDIMENARI BURUZKO FITXATEGIAK**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez du ondare eta kreditu kaudimenari buruzko fitxategietan dauden datuen tratamenduak ikertzeko eskumenik.

(CN12-023 Irizpena)

- **HAUTAKETA PROZESU BATEAN GAINONTZEKO PARTE HARTZAILEEN DATUAK ATZITZEKO ESKUBIDEA**

Udal batek deitutako hautaketa prozesu bateko parte hartzaileek hautaketa prozesu horretako gainontzeko parte hartzaileen datuak atzitzea ondo ezkontzen datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin, datu horiek jakitea garrantzitsua bada hautaketa prozesua behar bezala kontrolatzeko.

Baina ez da datu babesaren araberakoa izango esatea hautaketa prozesuko parte hartzaileen intimitatea kaltetzen duen bestelako informaziorik, batez ere, helburua lortzeko garrantzitsua ez bada.

([CN12-024](#) (pdf, 42 Kb) Irizpena)

- **LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ZERBITZU BATEN TXOSTEN BATEN LEGEZKOTASUNA**

Erakunde publiko bateko laneko arriskuen prebentzioko zerbitzu batek egindako txosten batek, langileen osasunari buruzko informazioa badu ere, txostena ondo ezkonduko da datu babesaren arloko araudiarekin, informazioa disoziatuta badago. Gainera, prebentzioko ordezkariak txostenaren berri izateko obligazioa dute, egokia dela irizten badiote.

([CN12-026](#) (pdf, 70 Kb) Irizpena)

- **IRAKASLEEI BURUZKO DATUAK LAGATZEA SINDIKATU BATI**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu dute argitzeko ea datu babesari buruzko araudiarekin bateragarria den berriki Euskal Autonomia Erkidegora transferitu diren erlijio irakasleen izen-abizenak lagatzea. Datu horiek transferentziaren aktan daudenez, eskaera egin duen sindikatuak akta horixe eskatu du, hain zuzen ere.

DBEBk uste du Eusko Jaurlaritzak erlijio irakasleen datu pertsonalak bere horretan lagatzea, nahiz eta sindikatu askatasunerako eskubidea betetzeko izan, ez dela portaera proportzionala eta zentzukoa, eta, beraz, ez dator bat datu babesarekin, ez duelako lege babesik edo gaikuntzarik. Sindikatu Askatasunari buruzko Legean



badago jasota legezko gaikuntza, baina datu jakin batzuei buruzko da, eta ordezkari sindikalei eta enpresa batzordeko kideei buruz ari da. Eta kasu honetan informazioa eskatzen dutenek ez dute baldintza hori betetzen, kontsulta idazkiak aditzera ematen duenez.

(CN12-030 Irizpena)

▪ ***ERTZAINZAK EGINDAKO ZIURTAGIRI BAT***

Bulegoaren irizpena eskatu zen argitzeko ea Ertzaintzak genero indarkeriako prozedura batean egindako egintza batzuei buruzko ziurtagiri bat oinarrizko eskubidearen arabera zen ala ez. 30/1992 Legearen ezarpen eremuko gaia da, eta ez DBLOren ezarpen eremukoa.

(CN12-031 Irizpena)

▪ ***AUTOPSIETAKO LAGINAK HARTZEKO GALDETEGIETAKO DATUAK***

Bulegoak iritzi dio tratatu beharreko datuak ez direla datu pertsonalak, eta, beraz, tratamendua ez dagoela DBLOren ezarpen esparruan.

(CN12-032 Irizpena)

▪ ***BESTE ADMINISTRAZIO BATETIK JASOTAKO DATUEN TRATAMENDUA***

Foru ogasun batek egindako salaketa baten aurrean, Bateriaezintasunei buruzko Legearen balizko urraketa bat dela eta, udal batek bertako funtzionario bati hasi eta izapidetutako diziplina espedienteak ez du urratzen datu babesari buruzko araudia.

(CN12-033 Irizpena)

▪ ***HATZ-MARKEN TRATAMENDUAN OINARRITUTAKO LANGILEENTZAKO ORDUTEGI KONTROLEKO SISTEMA DATU BABESAREN ARABERAKOA DA***

Bulegoaren iritzi datu babesaren arabera da, baina ezinbestekoa da DBLOren 5. artikuluan jasotako informazioaren printzipioa betetzea.

(CN12-035 Irizpena)



### 3.2. TXOSTENAK

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- Lege hau garatzeko xedapen orokorretako egitasmoei buruzko txostenak egitea, 2/2004 Legearen 17.1.h) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko proiektuen gaineko txostenak egitea, 2/2004 Legearen 17.1.l) artikulua eta DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.
- Bestelako lege-xedapenei eta hitzarmenei buruzko txostenak egitea, ebazteko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.
- DBEBren Lege Aholkularitzaren txostenak egitea

2012an 15 legezkoatasun txosten egin dira.

5 lege-aurreproiektu informatu dira; 6 dekretu proiektu; agindu proiektu 1, administrazioen arteko hitzarmen 2 eta DBEBren eta Mexikoko Datuak Babesteko eta Informazio Publikoa Atzitzeko Institutu Federalaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

Hona informatu ditugun proiektuen zerrenda:

- IL11-014 Euskadiko Enplegu Publikoari buruzko Legearen aurreproiektua.
- IL12-001 Osasun Publikoari eta Elikagaien Segurtasunari buruzko Lege-aurreproiektua.
- IL12-002 Urteko Estatistika Programaren dekretu-proiektua 2012.
- IL12-003 EAEko Kontabilitate Publikoko Planaren agindu-proiektua.
- IL12-004 Bitartekarien Erregistroari buruzko dekretu-proiektua.
- IL12-005 Gizarte Zerbitzuen Erregistroari buruzko dekretu-proiektua.
- IL12-006 Etxebizitzari buruzko lege-aurreproiektua.
- IL12-007 Informazioa bitarteko elektronikoen bidez trukatzeko, EAEko administrazio publikoen eta foru aldundien arteko lankidetzaren hitzarmenaren proiektua.



- IL12-008 Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa arautzen duen dekretu-proiektua.
- IL12-009 Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren eta LANBIDEn arteko informazioa trukatzeko hitzarmenaren proiektua.
- IL12-010 EAEko Sektore Publikoaren lege-aurreproiektua.
- IL12-011 Euskal Estatistika Planaren lege-aurreproiektua.
- IL12-012 EAEko Laneko Arriskuen Prebentzioko Ordezkarien Erregistroaren dekretu-proiektua.
- L12-013 Lan-arriskuen prebentzioaren alorrean arau-hauste oso larriak egiteagatik jasotako zehapenak argitaratzeko eta zehapena jaso duten enpresen erregistroari buruzko dekretu-proiektua.
- IL12-015 IFAI-DBEB lankidetzaren hitzarmena.

### 3.3. AHOLKULARITZA BILERAK, ETA MEZU ELEKTRONIKOEI ETA ETA TELEFONOZ ETA MODU TELEMATIKOZ EGINDAKO KONTSULTEI ERANTZUTEA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak duen izaera proaktiboa eta zerbitzu publikoa izateko asmoa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazioekin, eta bilera horietan hainbat gai buruzko aholkularitza eman diegu, esate baterako, obligazio formalak betetzeari buruzko hainbat gai; bai eta administrazio horien eskumen esparruan burutu behar dituzten jardueri buruzkoa ere.

2012an Lege Aholkularitzak hainbat erakunderekin aritu da lankidetzan, eta, bilera aipagarrien artean honakoak aipa ditzakegu:

- Hainbat bilera Vitoria-Gasteizko Erregistro Zibilaren ardura duen epailearekin, Donostia, Irun eta Arrasateko Udalen ordezkariekin eta SOS Haur Lapurtuak elkartearekin, haur lapurtuen gaiari buruz hitz egiteko.
- Bilera bat Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuarekin.
- Bilera bat Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ongizatearekin, mendekotasuna baloratzeko datuen tratamenduari buruz hitz egiteko.
- Bilera bat Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin, Euskadiko liburutegien sareari buruzkoa.
- Bilera bat Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritzarekin, administrazio elektronikoari buruzkoa.



Azpimarratu nahi dugu aholkularitza lan hau ez dugula egiten bakarrik administrazio bakoitzak duen kezka argitzeko, datu babesaren kultura zabaltzeko eta hedatzeko hartuta dugu konpromisoa betetzeko ere egiten baitugu.

Era berean, Bulegoak aholkularitza eman die erakundera hurbildu diren pertsona guztiei, herritarrek arlo honetan dituzten zalantza, kontsulta eta jakin min guztiak argitzen lagunduz, eta euren eskubideak benetan gauzatzeko behar duten informazioa eta dokumentazioa emanez.

Bulegoaren Lege Aholkularitzaren eguneroko lanaren zatirik handiena herritarrek eta administrazio eta erakunde publikoek telefonoz egiten dituzten kontsultei berehala eta banan-banan erantzutea izaten da. Jabetzen gara zein garrantzitsua den eginkizun hau gure erakundea gizartera gerturatzeko eta gizarteak Bulegoa bere zerbitzura dagoen erakundetzat hartzeko.

Berehalako arretaren osagarri, Bulegoak erantzun telematikoa emateko kanal bat ere badu, bide honetatik jasotzen dituen galderi erantzuteko. Kanal anitzeko arreta sistemaren bidez dakigu Bulegoak ehunka kontsulta ebatzi dituela. Horietatik, 381 erregistratu ditugu, garrantzi handia dutelako:

Canal de entrada / Tipo de consultante	Telefonoa	eMail	Aurrez aurre	Guztira
<i>Herritarrak</i>	94	50	14	158
<i>Administrazio publikoak</i>	85	107	1	193
<i>Beste pertsona juridiko batzuk</i>	21	7	2	30
<b>Guztira</b>	200	164	17	381

Formatu hau indartu egin nahi da, behin baino gehiagotan frogatu delako zein eraginkorra den.



## 4. KONTROL EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kontrol eginkizuna burutzeko, datuak babesteko araudia bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio publikoek araudia behar bezala ezartzen dutela ere kontrolatzen du; eta, hala badagokio, administrazio horien arau-haustek deklaratu eta administrazio horien kontura tratamendu arduradun eginkizunak burutzen dituzten enpresa pribatuei isunak ezartzen dizkiete.

Horretaz gain, herritarrek aurkezten dituzten atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak ("AZETA eskubideak" izenez ere ezagunak) babesteko erreklamazioak ebazten ditu.

### 4.1. ESKUBIDEAK BABESTEKO PROZEDURAK

Eskubideak babesteko prozedura Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusita dago, eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 11. artikuluan dago garatuta. Bertan esatenenez, DBEBri babes eskea egin ahal izateko, lehendabizi AZETA eskubidea erabili behar izan ditu dagokion administrazioan, eta administrazio horrek osorik edo zati batean ez bete izan eskatzaileak eskubidea.

2012an ikusi da nahiko igo dela Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztutako eskubideak babesteko erreklamazio kopurua, ia % 150 (13tik 32ra igo da kopurua).

Guztira 29 erreklamazio ebatzi ditugu.

Erreklamazio horietako batzuk ez dira DBLOren 15. artikuluan xedatutako atzipen eskubideari buruzkoak, hau da, ez dira DBEBren eskumenekoak, 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluetan xedatutako artxiboetan eta erregistroetan sartzeko eskubideari buruzkoak baizik.

Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubideen ondoan, babes eskaeren kopuruak izan duen igoera nabarmenak argi uzten du herritarrak asko kezkatzen dituen gaia dela Internet uzten duten arrastoa nola ezabatu. Laster batean onartzekotan dabilzan Datuak Babesteko Europako Erregelamenduak aurrean izango dituen erronka handienetako bat izango da hori, Erregelamenduak "ahazteko eskubidea" delakoari heltzen dionean.

- ET 11-003: Atzipen eskubidea erabiltzea. DBLOren 15. artikuluko atzipen eskubidea eta 30/1992 Legearen artxiboetara eta erregistroetara sartzeko eskubidea nahasten ditu. Ezetsia.
- ET 11-004: Seme adingabearen historia kliniko atzitzeko eskubidea. Uste du ez diotela oso-osorik eman. Ezetsi egin da, eman ez zioten informazioa ez dagoelako historia kliniko atzitzeko eskubidearen barruan (ohar subjektiboak).



- ET 11-006: Bere historia klinikoan hainbat datu ezerezteko eta aurka egiteko eskubideaz baliatzea Osakidetzan. Hasiera batean arrazoi formalengatik onartua, eta arrazoi materialengatik ere bai, aukerako berraztertzeke errekurtsua ebatzi ostean.
- ET 11-008: Datuak ezerezteko eskubidea erabiltzea Arabako Foru Aldundian, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratu ziren datu batzuk zirela eta. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET 11-009: Atzipen eskubidea erabiltzea Herrizaingo Sailean. DBLOren 15. artikuluko atzipen eskubidea eta 30/1992 Legearen artxiboetara eta erregistroetara sartzeko eskubidea nahasten ditu. Ezetsia.
- ET 11-010: Aitaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea. Aita hilda dago. Onetsia, arrazoi formalak tarteko; baina onarpen materiala ez, historia klinikoa atzitzeko eskubidearen barruan ez dauden datuak eskatzeagatik.
- ET 11-012: Atzipen eskubidea erabiltzea Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailean. DBLOren 15. artikuluko atzipen eskubidea eta 30/1992 Legearen artxiboetara eta erregistroetara sartzeko eskubidea nahasten ditu. Ezetsia.
- ET 12-002: Datuak ezerezteko eskubidea erabiltzea Vitoria-Gasteizko Udalean. Aldizkari batean agertu zen iritzi artikulua batetik bere espediente soziala kentzeko eskaera. Babes eskaera onartu egin zen, kalitatearen printzipioa urratu zelako (BDLOren 4.5 artikulua).
- ET 12-003: Erandioko Udalaren web orrian argitaratutako datu okerrak ezerezteko eta zuzentzeko eskubidea erabiltzea. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET 12-004: Justizia eta Herri Administrazioa Sailaren erantzukizunpeko segurtasun kamera batzuek hartutako irudia guztiak atzitzeko eskubidea erabiltzea. DBLOren 15. artikuluko atzipen eskubidea eta 30/1992 Legearen artxiboetara eta erregistroetara sartzeko eskubidea nahasten ditu. Ezetsia.
- ET 12-005: Santurtziko Udal Kirol Erakundean atzipen eskubidea erabiltzea. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.





- ET 12-006: Santurtziko Udal Kirol Erakundean atzipen eskubidea erabiltzea. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET 12-007: Santurtziko Udal Kirol Erakundean atzipen eskubidea erabiltzea. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET 12-008: Santurtziko Udal Kirol Erakundean atzipen eskubidea erabiltzea. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET 12-009: Santurtziko Udal Kirol Erakundean atzipen eskubidea erabiltzea. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET 12-010: Santurtziko Udal Kirol Erakundean atzipen eskubidea erabiltzea. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET 12-011: Datuak ezerezteko eskubidea erabiltzea Donostiako Udalean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hainbat datu argitaratzeagatik. Onetsia. Argitaratutako egintzak ondorio juridikoa zituenenez (jakinarazpena egitea) eta egintza edo ebazpen horren aurka egiteko aukerak agortuta zeudenez, ez zeukan zentzurik datu pertsonalak argitaratuta segitzea.
- ET 12-013: Datuak ezerezteko eskubidea erabiltzea Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Ordezkaritzan, aldizkari ofizialean hainbat datu argitaratzeagatik. Ezetsia, eskaera legezko epearen barruan bete zelako.
- ET 12-016: Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren hainbat fitxategitan dauden datuak atzitzeko eskubidea erabiltzea. Onetsia.
- ET 12-017: Amaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea. Ama hilda dago. Ez zaizkio datu guztiak eman. Onetsia.

#### 4.2. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo erakunde publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

2012an DBEBn 52 salaketa jaso ditugu idatziz, eta guztira 51 ebatzi ditugu.



#### 4.2.1. Artxibatutako salaketa aipagarrienak

- DN11-024: salaketa, Biztanleen Udal Erroldako sarbide gakoak modu bidegabean erabiltzeagatik. Artxibatu egin zen, tratamendu-eragilearen zeregina zelako izatez.
- DN11-025: Usurbilgo Udalaren aurka aurkeztu zuten salaketa artxibatu egin genuen. Hondakinen biltegiak jartzeko gune batean ipinitako bideo zaintza kameran aurkako salaketa zen. Salaketa artxibatu egin genuen, ezin izan zelako frogatu irudiak hartzen zirenik, ikuskapena egin zenean, kamerak itzalita zeudelako. Hala ere, udalari gogorarazi genion arau-haustea deklaratuko geniola kamerak zeuden tokian uzten bazituzten, handik kendu ezean, ustezko errugabetasun printzipioa bertan behera uzteko nahikoa arrazoi izango litzatekeelako.
- DN11-029: salatutako ekintza izan zen ideologiari buruzko ezkutuko fitxategiak edukitzea eta hainbat hautagai-zerrenda politiko legez kanpok uzteko erabili izana. Artxibatu egin genuen, salaketak ez zegoelako behar bezala argudiatuta.
- DN11-043: datu pertsonalak argitaratzea iragarki-oholean. Artxibatu egin genuen, isilbidezko adostasuna egon zela iritzita.
- DN11-053: polizia datuak ezerezteko ebatzi zuen udal ebazpen bat ez bete izana salatu zuten. Salaketa ezetsi egin zen datuak jada ezereztuta zeudelako.
- DN11-054: hirugarrenei datuak lagatzea. Salaketa artxibatu egin zen, ez zelako datu lagatzerik gertatu, tratamendu-eragile batek egindako atzipena baizik.
- DN12-003: salatu zena izan zen Osakidetzako zerbitzu zentraletan bertara sartzen diren pertsonen NAN zenbakiak gordetzen zituztela. Salaketa artxibatu egin zen, informazioa 24 orduz gordetzen zutela egiaztatu ostean.
- DN12-023: udaletxeko arkupean bideo kamerak jartzea. Salaketa artxibatu egin zen kamerak ez duelako bide publikoa grabatzen eta informazio txartela dagoelako.
- DN12-028: salatu zuten udal batek herritar baten telefonoa laga ziola beste bati. Salaketa artxibatu egin zen, frogarik ez zegoelako.
- DN12-043: udal batek Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga likidatu zezan, helbidearen datu jakinarazi ziotela salatu zuten. Salaketa artxibatu egin zen, datu lagatzea legearen arabera izan zelako.

#### 4.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoei irekitzen zaizkien prozedurak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan



daitekeen portaeraren bat izan dutelako zantzurik egonez gero. Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikulua arautzen ditu, eta artxibatzen direlako bukatzen dira edo, hala badagokio, arau-haustea deklaratu.

2012an DBEBn 22 arau-hauste prozedura ireki genituen eta guztira 26 ebatzi.

- PI11-010: datu pertsonal batzuk prentsan argitaratzea. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari arau-hauste prozedura bat ireki zitzaion DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua araberara arau-haustea arina da.
- PI11-012 y PI11-013: Osakidetzako ospitale baten aurkako salaketa bat jarri zuten, mezu elektronikoz bidez, generikoak agintzeagatik gutxienezko produktibitatearen helburua betetzen ez zuten medikuen zerrenda bat bidali zitzaielako bertako langileei.
- Arau-hauste prozedura bat ireki zitzaion ospitaleari DBLOren 4.2. artikulua ezarritako kalitatearen printzipioa urratzeagatik. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua araberara arau-haustea larria da.
- PI11-014: salaketa bat aurkeztu zuten ospitale publiko batean bideo zaintza kamera batzuk modu bidegabean jartzeagatik. Salaketa artxibatu egin zen, frogarik ez zegoelako.
- PI11-015, 016, 017, 018, 019, 020, 021 y 022: salaketa bat aurkeztu zen Lekeitioko Udalaren aurka, hainbat zigor-espeditetako datuak jakinarazteagatik hirugarren batzuei. Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua xedatzen duenez, arau-haustea larria da.
- PI12-001: Zigoitiko Udala salatu zuten, osasun datuak zituen akta bat argitaratzeagatik udalaren web orrian. 7.3 artikuluan xedatutako arau-haustea deklaratu genuen, adostasunik eta lege babesik gabe argitaratu zirelako datuak. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4 d) artikulua xedatzen duenez, arau-haustea oso larria da.
- PI12-002: funtzionario bati zigor espeditetara irekitzeko eskabide bati buruzko datuak lagatzea. Artziniegako Udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratu zuela deklaratu genuen. 2/2004 Legearen 22.3 f) artikulua araberara, arau-haustea larria da.



- PI12-003: Donostiako Aste Nagusian gune publiko batean bideo kamera jarri izana salatu zuten. Salaketa artxibatu egin genuen prozedura osoan zehar ez zelako frogatu datu tratamendurik egon zenik.
- PI12-004 eta PI12-005: udal aldizkarian datu pertsonalak argitaratzea. Arratzuko Udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan ezarritako sekretu gorde beharra urratu zuela deklaratu genuen. 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua araberan, arau-haustea arina da.
- PI12-006: Trapagarango Udalaren aurkako salaketa bat aurkeztu zuten herritar bati jakinarazpen bat bidaltzeagatik beste bost herritarren datu pertsonalekin. Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 c) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.
- PI12-007: Alegria-Dulantziko Udalaren aurkako salaketa bat aurkeztu zuten udal korporazioko kide izateari utzi zion zinegotzi baten datuak ez ezerezteagatik. Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 4.5. artikuluko kalitatearen printzipioa urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da.
- PI12-009: Muskizko Udalaren aurkako salaketa bat jarri zuten, erroldako datuak lagatzeagatik hirugarren bati. Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.
- PI12-010 eta PI12-011: Olaberriako Udalak trafikoko kamerak jarri zituen, baina egiaztatu gabe neurriaren proportzionaltasuna. Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 4.1. artikuluko kalitatearen printzipioa urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 23 c) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da.
- Olaberriako Udalak ez dio jakinarazi Datuak Babesteko Euskal Bulegoari kamerak kendu dituen ala ez, Bulegoak agindutakoa betetzeko.
- PI12-012: Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publiko bat salatu zuten, guraso elkarteari ikasleen zerrenda lagatzeagatik, datu pertsonal eta guzti, baina ikasleen edo haien legezko ordezkarien baimenik gabe. DBLOren 11.1 artikuluan xedatutako arau-haustea deklaratu zen. DBLOren 44.3.k) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinarazi zion DBEBri arau-haustearen ebazpenean jasotako neurria hartu zuela, eta Sailaren menpeko ikastetxeei bete beharreko hainbat jarraibide agindu zizkietela guraso elkarteei bakar-bakarrik jakinarazteko, elkartearen betebeharrak gauzatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak, eta aldez aurretik ikastetxeko ikasleen adostasun informatua eskuratuta izan beharko dutela, ikasleen heldutasunaren arabera; edo bestela gurasoen edo tutoreen baimena.



- PI12-013: Santurtziko Udala salatu zen ezkutuko kopiarik gabe mezu elektronikoa bidaltzeagatik era masiboan. Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-haustea arina da.
- PI12-015: Euskal Herriko Unibertsitatearen iragarki-oholean hainbat bileratako aktak argitaratu zituzten, eta argitaratu zen dokumentazioaren artean zigor espediente bati buruzko informazioa ere bazegoen. DBLOren 10 artikuluan xedatutako sekretu gorde beharra urratzeagatik arau-haustea deklaratu zen, eta 22 artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da.
- PI12-017: Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen bulego batean egiaztatu zen sarrerako harreraren dagoen pertsonalen aplikazio informatikoa edonork ikusteko moduan zeudela datuak. Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarritako sekretu gorde beharra urratu zuela deklaratu genuen. 2/2004 Legearen 22.2 g) artikulua araberan, arau-haustea larria da.
- PI12-019: Osakidetzako Zerbitzu Zentraletan dauden segurtasun kameretako batek bide publikoko irudiak hartzen ditu, espaloi biak eta errepidea barne. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6. artikuluan ezarritakoa urratu zuela deklaratu genuen. 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua araberan, arau-haustea larria da. Osakidetzak kendu egin zuen kamera.
- PI12-020: Alegria-Dulantziko udal bulegoetan jarritako segurtasun kameretako batek bide publikoko irudiak hartzen ditu. Udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6. artikulua arau-hauste bat deklaratu genion. 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua araberan, arau-haustea larria da.
- PI 12-021: Arrantza eta Kasting Euskal Federakuntzaren web orrian edonork ikusteko moduan egon ziren argitaratuta federazioko estamentu-liburuak, datu pertsonal eta guzti. Arrantza eta Kasting Euskal Federakuntzak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan ezarritako sekretu gorde beharra urratu zuela deklaratu genuen. 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua araberan, arau-haustea arina da.
- PI12-022: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren ospitale bateko gerentek ospitalearen jardura bat salatuz idatzitako idazki bati erantzun zion, eta herritar hori sindikalista izan zela eta ospitaleko langilea ere bai adierazi zuen. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 4. artikulua arau-hauste bat deklaratu genion. 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua araberan, arau-haustea larria da.




## 5. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA

### 5.1. INFORMAZIOAREN ITURBURUA.

Bulegoaren jardueren berri ematen duen oroitidazki honetako datuak Fitxategien Erregistroaren datu-basearen azterketan dute jatorria. Erregistroan DBEBn deklaraturako inskripzio guztiak daude, Erregistroa sortu zenetik gaur arte. Erregistroa 2004an sortu zen. Kalkulu guztietarako hartu den erreferentziako data izan da fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan "inskribatze, aldatzeko eta/edo ezabatze" data.

"DBEBren zifrak" deritzon eranskinean daude jasota zehatz-mehatz Datuak Babesteko Erregistroan 2012an egindako deklarazio guztiak. Horretarako, hainbat taula jarri dira honako datuekin: Erregistroaren bilakaera historikoaren datuak, fitxategien mugimenduei buruzko datuak, erakunde deklaratzaleei buruzkoak eta abarrei buruzkoak, beste aldagai hauekin gurutzatuta: lurraldeari, administrazio mailari eta segurtasun mailari buruzko datuak.

Horretaz gain, [www.avpd.es](http://www.avpd.es) web guneak izandako bisiten berri ere ematen da, web gunea sortu zenetik —2005ean sortu zen— gaur arte. Horretarako informazioa ateratzeko, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) erakunde atariko zerbitzarietan biltzen diren trafiko-datuen azterketa erabili da.




### 5.2. INSKRIPZIO ESKAERAK.

2012an 1.792 mugimendu egon dira guztira Fitxategien Erregistroan (sortzeko, aldatzeko edo ezabatze inskripzioak). Mugimendu horien % 50 fitxategi berriak sortu direlako egin diren inskripzioak izan dira (896 fitxategi berri). Aldaketak, ordea, 652 izan dira (% 36) eta 244

ezabatze egon dira (% 14).


Horren arabera, saldo garbia da (inskrizioak ken ezabatzeak) 652 fitxategi berri gehitu direla Datuak Babesteko Erregistroan. Beraz, 2012a bukatzean 7.871 fitxategi zeuden inskribatuta.






Eskuineko grafikoan sortze-inskripzioen urtez urteko bilakaera ikus daiteke eta urteroko mugimenduetatik ateratzen den fitxategien saldo garbia (sortze-inskripzioak ken ezabatze-inskripzioak).

Guztira dauden mugimenduen artean fitxategien ezabatzeak gutxi badira ere, horrek ez du esan nahi ezabatutako fitxategiko datu pertsonalen tratamenduak bertan behera geratzen direnik. Gehienetan gertatzen dena da fitxategia eraldatu egiten dela eta, aldi berean sortzen den beste fitxategi berri batean txertatzen dela.




Beste behin ere, mugimendu gehienak toki administrazioenak dira (udalak eta horien menpeko erakundeak). Guztira 1.025 mugimendu (% 57) egon dira, 2007an hasitako joera finkatuz. Eusko Jaurlaritzak ere fitxategien deklarazio kopurua nabarmen handitu du, eta 542 mugimendu egi ditu, guztiaren % 30.



Deklarazioak hilez hil ikusiz gero, antzematen da mugimendu gehien otsailean, apirilean eta ekainean gertatu direla. Eskuineko grafikoan ikus daiteke ondo. Hilean 166 eskaera egon dira batz beste (hilabete baliiodunak 11 izan dira).


### 5.3. ERAKUNDE DEKLARATZAILEAK

DBEBren Datuak Babesteko Erregistroan 1.196 fitxategi-arduradun zeuden jasota 20102aren bukaeran. Horien izaera juridikoari erreparatzen badiogu, gehienak (1.008) administrazio organoak dira (% 84); beste batzuk (151) erakunde autonomiadunak (% 13); eta, azkenik, gutxi batzuk (37) "bestelako izaera juridikoa" duten erakundeak dira (% 3).





Fitxategi bakoitzaren deklarazioan zehatz agertzen da jasota zein den fitxategiaren arduraduna (zuzendaritza orokorren edo administrazioko bestelako egitura zehatz baten arabera), baina ustez egokiagoa da horiek multzokatzea, erakunde deklaratuak nagusia kontuan hartuta, hau da, barruko egitura organikoa zehatza alde batera utzita. Beraz, erakundeak sailkatzeko, IFZ hartu da kontuan, desberdina dutelako, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, kasu horretan sail bakoitza erakunde deklaratuak nagusitza jo delako.



416 erakunde deklaratuak nagusi daude. 2011ko datuekin alderatuta, 9 erakunde deklaratuak nagusi gehiago daude. Erakunde deklaratuak nagusi horietatik 6 Bizkaikoak dira eta 3 Gipuzkoakoak.

2012a bukatzean 10 udal izan ziren Datuak Babesteko Erregistroan oraindik fitxategiak inskribatu gabe zeuzkaten udalak. 2011n 18 izan ziren eta 2010ean 30. Horrek esan nahi du batz bestea, %

44 gutxitu dela kopurua.

Baina, esan behar da 10 udal horietatik 9k jada bertako fitxategiak arautzeko xedapena onartuta zutela eta dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen, eta 2012aren bukaeran bakar-bakarrik falta zitzaizela DBEBko Datuak Babesteko Erregistroari jakinaraztea eta bertan inskribatzea. Beraz, esan daiteke udal horiek erregularizatuta dituztela fitxategiak.


Fitxategiak erregularizatu gabe dituen udal bakarra Gizaburuagako Udala da.





#### 5.4. 2012AN INSKRIBATUTAKO FITXATEGI AKTIBOAK

Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan 7.871 fitxategi daude aktibo 2012an. Hurrengo grafikoan ikus daiteke bakoitzaren "antzinakotasuna" edo fitxategi horien banaketa denboran zehar, hau da, fitxategi bakoitza zein urtetan deklaratu zen ikus daiteke grafikoan. Grafikoaren arabera, aktibo dauden fitxategien % 88,1 2004az geroztik deklaratu dituztela esan daiteke.



#### 5.5. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKETA, ERAKUNDEEN ARABERA.


Inskribatuta dauden 7.871 fitxategietatik gehienak tokiko administrazioenak dira: guztira 5.880 fitxategi. 2012an zehar ere udalak izan dira, balio absolutuen arabera, mugimendu gehien ekarri dituztenak, 540 fitxategi gehiagoko saldo garbiarekin. Horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta, % 10.1 igo dela kopurua.

Aurten batz besteko igoera handiena udalez gairak erakundeen aldetik etorri da, % 15,7 igo baita erakunde horien fitxategi kopurua, 39 fitxategi berriko saldo garbiarekin. Beraz, guztira, 287 fitxategi dituzte inskribatuta.



## 5.6. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN SEGURTASUN MAILAK

Jakin nahi bada zein den zenbait organismok datu babesari eskaintzen dioten dedikazioa, kontuan hartu beharreko adierazle bat da inskribatutako zenbat fitxategik duten esleituta segurtasun maila.



2012aren bukaeran 349 fitxategi zeuden segurtasun maila deklaratu gabe. Era horretako fitxategien kopurua % 7,7 gutxitu da iazko kopuruarekin alderatuta (29 fitxategi gutxiago).

Eskuineko grafikoan ikus daiteke zein den inskribatuta dauden fitxategien segurtasun maila eta noiz inskribatu zen lehen aldiz fitxategia.

Ikusten da segurtasun mailarik ez duten fitxategiak 1994 eta 1995 urteetan sortu ziren fitxategien multzo batekoak direla, eta sortu zirenetik ez dute aldaketarik izan.

## 5.7. BULEGOAREN WWW.AVPD.ES WEB ORRIAREN ERABILERAREN ESTADISTIKA.


Ondoko grafikoetan ikus daiteke DBEBren [www.avpd.es](http://www.avpd.es) web orrian egon diren mugimenduak. Neurketaren datuak [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) erakunde atariko zerbitzarietan biltzen diren trafiko-datuak azterketatik atera dira.

Web orriaren jardueraren inguruan ondoko bi grafiko hauek aurkezten ditugu.


([www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) atariak bertan izandako bisitak neurtzeko daukan moduak ez du uzten eskuratutako zifrak neurri erreal bezala erabiltzen, baina balio du denboran zehar izandako joera aztertzeko eta erkatzeko).



Batean, web orriak izan dituen bisitak adierazten dira hiru hileka, eta bisita horiek zenbatzeko, berdinak ez diren bisitak zenbatu dira. Bestean, web orriko guneek izandako bisitak adierazten dira hiru hileka, eta horretarako, zerbitzariak bidalitako orriak hartu dira kontuan.



2012ko bisitari kopurua % 30 baino gehiago igo da guztira aurreko urteko kopuruarekin alderatuta, eta bisitatutako orrialde kopurua ere hasi egin da (% 6,24).





## 6. DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK

### 6.1. DATU BABESARI BURUZKO HIRUGARREN AZTERKETA KUANTITATIBOA: HERRITARREK DATU BABESAZ DUTEN PERTZEPZIOA.

Azterketa hau 2012ko apirilean egin zen, Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, 2008an eta 2009an egindakoak sakonduz, eta datu babesaren arloko joerak antzemateko eta ezagutzeko oso lagungarria da guretzat.

Informazio bilketa banan-banan eta telefono deien bidez egin zen, eta galdetegi egituratu eta itxi bat erabili zen.

Azterketaren emaitzak [www.avpd.es](http://www.avpd.es) web orrian daude ikusgai, baina hemen zerrendatuta dauden emaitza aipagarrienak:

- Zenbateko kezka. % 42k adierazi du lehen baino kezkatuago dagoela, baina oso kezkatuta daudenen batz bestekoa (% 38) ez da aldatu 2008tik hona.
- Arriskuaren pertzepzioa % 41entzat berdin dio adinak arriskuen aurrean. 2008arekin alderatuta, bost puntu igo da 18 urtetik beherakoen arrisku egoera handiago dela uste dutenen kopurua (% 22).
- Segurtasunaren pertzepzioa: populazioren gehiengo zabalak gero eta konfiantza handiagoa du kreditu txartelaz ordaintzeko orduan (%63) eta kutxazainetan banku operazioak egiteko orduan (% 52). % 65 ez da fidatzen telefono bidezko banku operazioez, eta are gutxiago fidatzen dira (% 83) erosketak egiteko orduan txartelaren zenbakia telefonoz emateaz. % 37 izena, jaiotze data eta helbidea emateko prest ageri da, Baina, bakar-bakarrik % 17k dago NAN besterik gabe emateko prest, % 4 zerga datuak emateko prest, % 19 osasun datuak emateko prest eta % 11 datu judizialak emateko prest. Urte urte kopuruak txikituz doaz, eta horrek esan nahi du datu babesari dagokionez, handituz doala gizartearen kontzientzia.
- Segurtasuna pribatutasunaren gainera. Kontsultatu diren pertsonentzat segurtasunak (% 63) pribatutasunak (%26) baino garrantzi handiagoa du, eta joera hori gorantz doa, segurtasuna nagusituz.
- Organizazioek datu pertsonalak ondo erabiltzen dituztelako ustea. Gero eta pertsona gehiagok uste du erakunde pribatuek (% 54) eta enpresa pribatuek (% 55) informazio gehiegi dutela; baina, orain datu gehiago eskatzen zaizkielako pertzepzioa 4 puntu jaitsi da.
- Zein erakundeengan duen konfiantzarik handiena jendeak, datu babesaren erabilerari dagokionez: Osakidetza (% 93), Gizarte Segurantzza (% 87), Ogasuna (% 80) eta Eusko Jaurlaritza (% 79). Azpimarratzekoa da jaitsi egin dela



bankuenganako, aseguru konpainienganako eta inkestak egiten dituzten enpresenganako konfiantza.

- Datu pertsonalak eta teknologia berriak. sei puntu handitu da segurtasun edo bideo zaintzako kamerak erabiltzearen alde daudenen kopurua (% 59), eta bost puntu jaitsi da informatika ezagupenen erabilera –pasahitzak, *spamen* aurkako programak ...– datu pertsonalak babesteko (% 70).
- Informazio pertsonala Interneten egoteak dakarren kezka. % 66k dio oso edo nahikoa kezkatuta dagoela Interneten argitaratzen den informazioa betiko egon daitekeelako bertan, nahiz eta guk pentsatu ezabatu egin dugula. Hala ere, % 59k aitortzen du ez dituela bisitatzen dituen web orrietako pribatutasun politikak irakurtzen.
- Sare sozialak. Kontsultatutako pertsonen % 50ak erabiltzen ditu sare sozialak, era 5 puntu handitu da datu pertsonalen gainean argi eta garbi informatzen ez dutelako pertzepzioa. 5 puntu handitu da eskatzen duten informazioa gutxiegi delako pertzepzioa (% 32).
- Datu pertsonalak lagatzea. Inprimakiak betetzean adostasuna 31 puntu jaitsi da 2008az geroztik, eta orain % 9a da. Bestalde, datu ezeztatzeak apur bat igo dira, % 20 izatetik 2008an %24 izatera 2012an.
- Legediaren eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gaineko ezagutza. 2008az alderatuta, 9 puntu handitu da Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen gaineko ezagutza eta % 46koa da ia-ia. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gaineko ezagutza 24 puntu handitu da (% 40).

## 6.2. DATU BABESARI BURUZKO HIRUGARREN AZTERKETA KUALITATIBOA: DATU BABESAREN GAINEKO AZTERKETA EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FITXATEGIEN ARDURADUNEN ARTEAN.

2011ko azterketa kuantitatiboan jaso ziren datu pertsonalen fitxategien arduradunen ezagutza eta jardueri buruzko emaitzak sakontzeko, azterketa kualitatibo bat egin da, Kualitate Lantaldea Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen lankidetzarekin, 2011ko azterketan identifikatu ziren elementu kritikoak gehiago sakontzeko eta hobeto aztertzeko.

Landa lana 6 talde dinamika bidez egin zen, udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren parte hartzearekin. Taldeak eratzeko erabili zen irizpidea izan zen datu babesaren arloko aurrerapen maila: aurreratua, ertaina eta oinarrizkoa.

Emaitzak ikusgai daude Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web orrian. Azterketa otsailean amaitu zuten. Hona hemen aipatzea merezi duten indar ideia batzuk:



▪ **UDALERRIAK:**

- Udalerrri mota bi daude: datu babesaren arloan aurreratuta daudenak eta atzeratuta daudenak.
- Datu babesa kudeaketa "lan gehigarritzat" jotzen dute.
- Udal mota bakoitzari egokitutako ibilbidea finkatzea.
- Jardunbide egokiak identifikatzea.
- Bulegoak jarrera enpatikoa agertzea eta udalerrien egoera kontuan hartzea.

▪ **FORU ALDUNDIAK:**

- Datuak babesteko neurrien implementazioa beste erakundeetan baino hobea da.
- Talde homogeenak dira eta errazagoa da hobetzeko ekimenak ezartzea.
- Jardunbide egokiak finkatzeko eta hobetzeko arloen bilketa egiteko premia antzematen da.
- DBEBko profesionalen gaitasun eta kalitate teknikoa ikusten da, baina aldi berean jarrera ulerkorragoa eskatzen zaie.

▪ **EUSKO JAURLARITZA:**

- Sailek ez dute osotasun homogeen bat eratzen, batzuk oso aurreratuta daude eta beste batzuk ez hainbeste.
- Hobetzeko ibilbideak eta jardunbide egokiak zehatzeko premia ikusten da.
- DBEBren profesionaltasuna antzematen da, baina egoera bakoitza kontuan hartzeko eskatzen diote.



## 7. PRIBATUTASUNAREN KONTZEPTUAREN ETA DBEB-REN JARDUEREN ZABALKUNDEA

### 7.1. DATU BABESAREN EUROPAKO EGUNA. 2012KO URTARRILAREN 28A

Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta datuak babesteko agintaritzek urtero ospatzen dugu urtarrilaren 28an [Datu Babesaren Europako Eguna](#), egun horretan izenpetu zelako "Datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren aurrean pertsonak babesteari buruzko Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmena".

Aurten DBEBk, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, [Hezkuntza Gida](#) bat jarri du irakasleen eta ikasleen eskura, pribatutasunak eta datu pertsonalen babesak duten garrantziaz jabetzeko eta sentsibilizatzeko.

Gidak datu pertsonalak babesteko eskubidea aztertzen du, pribatutasunerako eskubide orokorretik bereiziz, eta datu babesa beste balio eta jarrera positiboekin lotutako herritartasunaren alderdi moduan lantzen du, adibidez, giza eskubideen, denon onuraren eta legearen agintearen aldeko kezka.

Gidaren funtsezko kontzeptuen helburua da ikasleak herritar aktiboak, kontzientek eta arduratsuak izatea.

Eskubideak eta ardurak, ezagutzak eta gaitasunak, eta jarrerak eta balioak lantzen ditu; azken finean, herritartasun aktiboaren ikuspegi berri bat ematen du.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin, Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziarekin eta Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzarekin batera, egokitu egin du hasiera batean Irlandako Datuak Babesteko Agintaritzaren Bulegoak egindako materiala.

Hezkuntza baliabide hau urtarrilaren 28an aurkeztu zuten, DBEBren zuzendariak eta Hezkuntza Sailburuordeak elkarrekin egindako aurkezpenean Gasteizko etorbidean dagoen Berritzegunean. Ekitaldian hainbat irakasle eta beste berritzeguneetako zuzendariak egon ziren.



## 7.2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAN KOMUNIKABIDEETAN

### 7.2.1 Prentsa idatzia

Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
2012/01/19.	Elkarrizketa Iñaki Vicuñari	Diario Expansión
2012/01/27.	<a href="#">"Gero eta gehiago borrokatuko da datuen babesaren eta pertsonen pribatutasunaren alde"</a>	Diario de Noticias de Gipuzkoa
2012/01/27.	<a href="#">Sarean datu pertsonalak esekitzeak ekar ditzakeen arriskuen gaineko ohartarazpena egiten duen gida bat gazteentzat</a>	ABC
2012/01/27.	<a href="#">Datuk Babesteko Euskal Bulegoak eta Eusko Jaurlaritzak euren pribatutasuna defendatzeko proposatu diete ikasleei eta familiei</a>	Europa Press
2012/01/27.	<a href="#">Datuk Babesteko Euskal Bulegoak eta Eusko Jaurlaritzak euren pribatutasuna defendatzeko proposatu diete ikasleei eta familiei</a>	20minutos.es
2012/01/27.	<a href="#">Sarean datu pertsonalak esekitzeak ekar ditzakeen arriskuen gaineko ohartarazpena egiten duen gida bat gazteentzat</a>	ABC
2012/01/27.	<a href="#">"Gazteek gurasoek gaztetan egin zituzten tontokeria berak egiten dituzte, baina orain lehen ez bezala, egindakoaren aztarnak geratzen dira"</a>	Diario de Noticias de Gipuzkoa
2012/01/27.	Identitate digitala	Diario de Noticias de Alava
2012/01/27.	<a href="#">Datuk Babesteko Euskal Bulegoak pribatutasuna babesteko eskatu diete familiei, ikasleei eta irakasleei.</a>	Europa Press
2012/01/27.	<a href="#">Datu Babesaren Europako Eguna Datuk Babesteko Euskal Bulegoa</a>	APEP (Espainiako Pribatutasuneko Elkarte Profesionala)
2012/01/28.	<a href="#">Datu Babesaren Europako Eguna - Datuk Babesteko Hezkuntza Gida Irakasleentzat</a>	Iurismática Abogados - Derecho TICs





Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
2012/01/28.	<a href="#">Irudiaren defentsan</a>	Diario Vasco
2012/01/28.	<a href="#">Palabra en Transparencia / Protección de Datos Personales - Claudio Cirio Romero - Tlaxcala</a>	e-consulta.com
2012/01/28.	Abiadura sare sozialetan	El Correo
2012/01/28.	<a href="#">Iñaki Vicuña: "Ez dugu behar beste gordetzen gure intimitate birtuala"</a>	El País
2012/01/30.	<a href="#">"Datu babesak hobera egin du, aurrerapen teknologikoak izan arren"</a>	Expansión.com
2012/01/30.	<a href="#">Datuak Babesteko Euskal Bulegoak 30 salaketa jaso zituen iaz</a>	El Correo
2012/01/31.	<a href="#">Pribatutasunari buruzko gida irakasleentzat</a>	Datuak Babesteko Legea (LOPD). Laguntza
2012-01-	<a href="#">Elkarrizketa Iñaki Vicuñari, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari, Datu Babesaren Europako eguna dela eta</a>	Boletín APEP
2012/02/15.	<a href="#">Erregistratu, sartu, baja eman. Babestu zure pribatutasuna eta kontrolatu zure datuak / Irlandako Datuak Babesteko Agintaritzaren Bulegoa</a>	INTECO
2012/02/23.	<a href="#">"Gure datuek babestuta segitzen dute"</a>	Deia
2012/03/04.	<a href="#">"Gure datuek babestuta segitzen dute"</a>	Diario de Noticias de Alava
2012/03/29.	<a href="#">Identidad digital</a>	Diario de Noticias de Gipuzkoa
2012/04/04.	<a href="#">Euskal Autonomia Erkidegoko Elektronika Informatikoko eta Telekomunikazioetako Klusterra Euskadira bisitan etorri den Rio de Janeiroko ordezkariarekin elkartu da</a>	Acceso.com
2012/04/18.	<a href="#">Jazarpen digitalak ez du errukirik erakusten adin txikikoekin</a>	Diario de Noticias de Gipuzkoa



Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
2012/05/03.	<a href="#">UNED-Bergara XI. Izena emateko epea zabalik</a>	Goiena
2012/05/14.	<a href="#">Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari berri izendatu dute</a>	ABC
2012/05/15.	<a href="#">Iñaki Pariente de Prada, Euskal Bulegoaren zuzendari berria</a>	Diario de Noticias de Gipuzkoa
2012/05/15.	<a href="#">Melchor Gilen aurkako salaketa artxibatu egin dute</a>	Deia
2012/05/15.	<a href="#">Melchor Gilen aurkako salaketa artxibatu egin dute</a>	Diario de Noticias de Alava
2012/05/16.	<a href="#">Euskal herritarren % 89k ez du nahi sare sozialek euren datu pertsonalak erabiltzea merkataritza helburuekin</a>	Europa Press
2012/05/16.	<a href="#">28 proposamen UNEDekin batera</a>	Diario Vasco
2012/05/16.	<a href="#">Melchor Gilen aurkako fiskaltzaren kausa artxibatu egin dute</a>	Diario de Noticias de Gipuzkoa
2012/05/17.	<a href="#">Euskal herritarrak ez dira fidatzen sarean egite diren erosketez eta bankuko operazioez</a>	Diario Vasco
2012/05/20.	<a href="#">Bere bizitza zaborrean ikusgai</a>	El País
2012/05/20.	<a href="#">Euskal herritarren bi herenek diote kezkatuta daudela haien datuak Interneten dauden denboragatik</a>	Europa Press. Eusl. Autonomia Erkidegoa
2012/05/20.	<a href="#">Interneten erabiltzaileen % 66 kezkatuta dauden euren datuen erabileragatik</a>	ABC
2012/06/02.	<a href="#">"Badago gutaz guk uste duguna baino gehiago dakienik". Iñaki Pariente de Prada, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria</a>	Diario Vasco
2012/06/03.	"Badago gutaz guk uste duguna baino gehiago dakienik". Iñaki Pariente de Prada, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria	Diario Vasco
2012/06/13.	<a href="#">Pribatutasuna eta datu babesa mundu globalizatuan</a>	Kode Zibilen eta Androidaren



Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
		artean
2012/07/15.	Elkarrizketa Román Intxaurtietari	Berria
2012/07/15.	Non dago ezabatzeko tekla?	Berria
2012/07/16.	<a href="#">Iñaki Pariente de Prada "Badago gutaz guk uste duguna baino gehiago dakienik".</a>	El Correo
2012/09/11.	<a href="#">Datu Babesari buruzko Nazioarteko Foro egin dute</a>	Mnoticias
2012/09/13.	<a href="#">CTAINLek Datu Babesari buruzko Nazioarteko Foroa iragarri du</a>	El Porvenir
2012/09/17.	Datu Babesari buruzko Nazioarteko III Foroa bukatu da arrakasta handiz	Boletín de prensa CTAINL (México)
2012/09/20.	<a href="#">Indarrak batzea nazioarteko eskubideen arloan</a>	El Porvenir (Monterrey, Nuevo León-México)
2012/09/22.	<a href="#">Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bertan behera utzi du Herrizaingo Sailak ezarritako Linea 900 zerbitzua</a>	Deia
2012/09/25.	<a href="#">Sare sozialei eskatu diete erabiltzaileei buruzko informazioa "kontu handiz" erabiltzeko</a>	ABC
2012/09/25.	<a href="#">Pariente de Pradak gomendatu die gazteei ondo pentsatzeko zer jarriko duten sare sozialetan</a>	Deia
2012/09/26.	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ohartarazpena haur eta gazteei	El Correo
2012-10-	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari	APEP
2012/10/07.	Pribatutasunaren erakusleioa	El Correo
2012/10/06.	<a href="#">ERNEK baja hartu behar duten ertzainei derrigorrean ezarritako Linea 900 zerbitzua salatuko du</a>	Deia
2012/11/12.	<a href="#">Arlo desberdinetako adituek aisialdi digitalaren</a>	Informativostelegi



Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
	<a href="#">inguruko kontsumoaren joerak aztertuko dituzte</a>	nco.com
2012/12/02.	<a href="#">Bilduren zabor bilketarako eredua esportagarria da?</a>	Eldiario.es
2012/12/02.	"Interneteko argazkiak asteko 7 egunak eta eguneko 24 orduak dabilta zure atzetik"	El Correo

### 7.2.2. Irratia eta telebista

Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
2012/01/11.	Elkarrizketa Iñaki Vicuñari	EITB: "Consumidores"
2012/01/18.	Elkarrizketa Iñaki Vicuñari	Radio Nacional
2012/01/27.	Román Intxaurtieta	Radio Euskadi: "La Factoría"
2012/05/23.	Elkarrizketa DBEBren zuzendariari, herritarren Pertzeptzioari buruzko 2012ko Azterketa Kuantitatiboari buruz	Punto Radio
2012/05/24.	<a href="#">Datu babesa: elkarrizketa Samuel Parrari, Iñaki Parienteri eta Javier Tamayori (Tuenti)</a>	Radio Vitoria: Plaza Nueva
2012/07/03.	<a href="#">Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroak: Atzo hasi ziren Donostia-San Sebastiánen EHUren Udako Ikastaroak Iñaki Parienterekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarekin hizketan</a>	Radio Euskadi:
2012/07/22.	<a href="#">Bigarren ordua Malpensando eta Iñaki Pariente de Pradarekin</a>	Radio Euskadi: Más que palabras
2012/07/24.	Elkarrizketa Iñaki Parienteri sare sozialei buruz; aholkuak eta baliabideak	Punto Radio
2012/10/02.	<a href="#">Elkarrizketa Iñaki Parienteri, DBEBk UNEDen emandako ikastaroaren gainean</a>	Radio Vitoria
2012/10/15.	<a href="#">Elkarrizketa Iñaki Parienteri</a>	Radio EITB. Grafitti



Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
2012/10/22.	Elkarrizketa Pedro Alberto González González	Radio Bilbao



## 8. ESPERIENTZIAK ETA IKASTAROAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN ETA BESTE ERAKUNDE BATZUETAN

### 8.1. DATU BABESARI BURUZKO NAZIOARTEKO ZENBAIT FOROTAN PARTE HARTZEA

- **[Datuak Babesteko Europako Agintaritzen Konferentzia \(ingelesez\). Udaberriko Konferentzia. Luxenburgo, maiatzaren 2tik 4ra](#)**
- **[Pribatutasunerako eta Datu Babeserako Agintaritzen 34. Nazioarteko Konferentzia \(ingelesez\). Uruguay, urriaren 23a eta 24a. Datu Pertsonalen Unitate Erregulatzailerako eta Kontrolerako](#)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak parte hartu zuen 2012ko urrian Uruguain egin zuten nazioarteko agintaritzen bilera honetan. Nazioarteko konferentzia honek alde ireki bat du, eta bertan antolatutako mahai-inguruetan parte hartzen dute hizlariak, egun datu babesaren bilakaeraren arloan garrantzi handiena duten gaiak birpasatzeko.

Besteak beste, pribatutasuna diseinutik bertatik zaintzeaz, sare sozialez eta horiek informazioaren esparruetan ezartzeari buruz hitz egin zuten.

Konferentziaren alde itxian, ordea, mundu guztiko kontrol agintaritzak bakarrik hartzen dute parte. Han ikusi zen zein garrantzia handia eman zion antolaketa batzordeak "profiling" delakoaren baldintzak eta betekizunak aztertzeari. Profilinga da datu pertsonal kopuru handi batetik (big data) profilak sortzen dituen mekanismo bat. [Konferentziak fenomeno honek dakartzan arriskuei buruzko ebazpen bat \(ingelesez\)](#) egin zuen.

Konferentzia [Uruguako Agintaritzaren Arautzailea \(gaztelaniaz\)](#) antolatu zuen, eta urriaren 23an eta 24an izan zen.

Eskerrak eman behar zaizkio antolakuntzari konferentzia antolatzeko egin duen lanagatik.

### 8.2. HITZALDIETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTZEA

- ***Hitzaldia Arabako Abokatuen Elkargoan, urtarrilaren 20an, Vitoria-Gasteizen.***

Datuak babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak sarrerako prestakuntza saio batean hartu zuen parte, eta elkargoko ikasleei —etorkizuneko ofizioko abokatuak— datu pertsonalen babesaren arloko oinarriko kontzeptuak azaldu zizkien.



- **Hitzaldia Ararteko erakundean, otsailaren 10ean, Vitoria-Gasteizko Montehermoso jauregian.**
- **Administrazio Elektronikoari buruzko Hausnarketarako V. Jardunaldia, otsailaren 23an, Getxon, Bake-Eder jauregian. Beste gai batzuen artean, osasun datuak aztertu zituzten.**
- **[Osasuneko Datuen Babesari buruzko IX. Foroa \(gaztelaniaz\)](#), Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarteak (SEIS) antolatuta, otsailaren 25ean eta 26an, Iruñean.**
- **Hitzaldia, Ingeniarien Eskolan, maiatzaren 2an, Bilbaon, Informatikako Fakultatean.**
- **[Laneko Arriskuak Prebenitzeko X Nazioarteko Biltzarra \(ORP 2012\)](#), maiatzaren 23tik 25era bitartean, Bilbaon.**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak, Iñaki Pariente de Pradak parte hartu zuen Laneko Arriskuak Prebenitzeko Biltzarrean, maiatzaren 23etik 25era bitartean, Euskalduna jauregian.

Biltzarrean laneko arriskuen prebentzioari buruzko hainbat gai landu zituzten, era zabalean, eta enpresa eta administrazio askok hartu zuten parte.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak, Iñaki Pariente de Pradak espediente mediku-laboralari buruzko mahai-inguru batean hartu zuen parte, eta osasunarekin eta laneko osasunarekin zer ikusia duten hainbat erakundek, bi alderdi horiek uztartzeko, abian jarri nahi duten proiektu baten garapenak ekar ditzakeen arriskuak azaldu zituen. Kontua da alderdi horiek oso harreman estua dutela, baina, hala, ere, datu babesari dagokionez, gaiak baditu hainbat zailtasun. Mahai-inguruan zailtasunen berri ere eman zen, eta Bulegoak bere burua eskaini zuen aurrerantzean gai honi buruzko aholkularitza emateko.

- **Jardunaldia, osasunaren esparruan datuak babesteari buruz, Donostia Ospitalean, 2012ko ekainean.**
- **[“Pribatutasuna eta datuen babesa gaur egun mundu globalizatuan”](#) Jardunaldia. Donostia-San Sebastián, ekainaren 11 eta 12a.**
- **[Gobernu Irekiaren Estandarrei buruzko Jardunaldia eta Gardentasunari buruzko Legeari buruzko Biltzarra](#), ekainaren 27an, Bilbaon, Campos Elíseos antzokian.**
- **Zuzenbide Digitalari buruzko Nazioarteko Biltzarra.**

2012ko ekainaren 29an “[Digital Law World Congress \(ingelesez\)](#)” delako biltzarra egin zen, hau da, Zuzenbide Digitalari buruzko Nazioarteko Biltzarra. Bertan egon



zen, antolakuntzak gonbidatuta, Iñaki Pariente de Prada, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria.

Biltzar hau sortu zen arloko profesional garrantzitsuenek foro bat izan dezaten denak elkartzeko eta egun bateko iraupena duen ekitaldi bakar batean parte hartu ahal izateko; eta parte hartzea, hain zuzen ere, handia izan zen.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere hartu zuen parte. Biltzarrean agerian jarri ziren Espainian, Europan eta Estatu Batuetan datu babesaren eta pribatutasunaren esparruan dauden joera garrantzitsuenak.

- **[Datu Babesaren Nazioarteko III. Foroa](#), irailaren 13an eta 14an, Mexikon, "Babes Konstituzionala: Pribatutasuna eta Informazioa" izen buruarekin. DBEBren zuzendariak hitzaldi bat eman zuen. Hitzaldiaren izenburua: "Aldaketak Legedian Datu Babesari dagokionez".**

Irailaren 13an eta 14an Mexikoko Monterreyn datu babesari eta informazioaren pribatutasunari buruzko biltzar bat egin zen. Bertan elkartu ziren, besteak beste, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria, eta Madrileko Erkidegoko Datuak Babesteko Agentziaren egungo zuzendaria eta aurrekoa: Antonio Troncoso jauna. Antolakuntzak hizlarien gastu guztiak, hau da, bidaia gastuak, mantenua eta bestelakoak, beregain hartu zituen.

Biltzarraren helburua datu babesa eta gardentasuna elkarrekin lotzea izan zen. Azken urteotan Mexikok gardentasunaren inguruko lege eta jardunbide asko garatu ditu, eta orain datu pertsonalak babesteari buruzko esparrua garatu nahian ari da.

Esparru horretan zeukaten hutsunea betetzea zen kontua, eta Europako Legediari buruz duten ezagutza osatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak foroan parte hartzeko aukera izan zuen, eta han azaldu zituen Espainian eta Europan azken aldian datu babesaren arloan egon diren aurrerapenak; esate baterako Europako Erregelamenduaren proposameneko —2012ko urtarrilaren 25ean aurkeztu zuten eta oraindik negoziaketetan ari dira— zenbait alderdi azaldu zituen, Mexikon erabilgarriak izan daitezkeenak bertako legedia osatzeko.

Hirurehun lagun baino gehiagok hartu zuten parte. Herrialdean tradizio handikoa den Nueva Leóngo Unibertsitatean egin zen biltzarra.





- **“Zuzenbidea emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurrean: aurrerapenak eta erronkak” Jardunaldia. Bilbaon, irailaren 20 eta 21ean.**

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak eskatuta; hobeto esanda, jada desagertuta dagoen Genero Indarkeria zuzendariak gonbidatuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak Bilbaoko Euskalduna Jauregian egin zen biltzar honetan hartu zuen parte. Biltzarraren gai nagusia indarkeria matxista izan zen, eta zuzendariaren hitzaldiaren izenburua honakoa: "Emakumeen aurkako indarkeria matxista: pribatutasuna eta informazioaren tratamendua". Hitzaldian zuzendariak azaldu zuen zein diren datuak babesteko legediak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei aitortzen dizkieten eskubideak, bai eta eskubideok emakumeak babesteko lagungarriak direla ere. Era berean, emakume horien datu pertsonalak babesteko eskubideak eskatzen du genero indarkeriari buruzko informazioa tratatzen duten guztiek modu jakin batean jokatzera, eta hori ez denez gertatzen, akats asko daude eta eskubidea ez da behar bezala errespetatzen. Baina, aukera ona izan zen arlo honetan nola jardun behar den eta zein diren portaera egokiak azaltzeko.

- **“Askatasunaren, Segurtasunaren eta Justiziaren Eremua; Schengen eta Datu Babesa” Jardunaldi Zientifikoa, Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) antolatuta. Donostia-San Sebastián, urriaren 3a.**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak jardunaldian hartu zuen parte. Bertan aztertu zituzten zein diren datu babesak epaileen eta poliziaren arteko Schengen lankidetzaren sistemako informazio trukatzeari ezartzen dizkion betekizunak; eta, horrekin lotuta, Schengen gunearen gaineko araudian egin diren azken berrikuntzak aztertu zituzten. Datuak Babesteko Espainiako Agentziari atxikitako Estatuko legelariak ere hartu zuen parte eta bere erakundearen ikuspegia azaldu zuen.

- ***Datu Babesa Osasunaren Esparruan Jardunaldia, azaroaren 3an, Donostiako Ospitale Onkologikoan.***

Donostiako Ospitale Onkologikoaren zuzendaritzak bertako langileei zuzendutako kontzientziazio eta prestakuntza saio bat emateko eskatu zion Bulegoari, ospitalean ahalik eta ondoen betetzeko datu pertsonalak babesteko araudia.

Hori dela eta, azaroaren 3an ordu eta erdiko hitzaldi bat antolatu zen, eta horren ostean, mahai-inguru bat ere bai. Zuzendariak osasun esparruak dituen arazo handienak azaldu zituen, osasun esparruak oraindik ez duelako guztiz betetzen araudia, eta osasunaren esparrua benetan da garrantzitsua, indarrean dagoen legediaren arabera, osasun datuak bereziki babestutako datuak baitira.



- ***Informazio Atzipenari, Datu Pertsonalen Babesari eta Federazioaren Botere Judizialaren Kontu Emateei buruzko Nazioarteko Mintegia, azaroaren 26an, Mexikon.***

Nazioko Justizia Gorte Nagusiak (Espainiako Konstituzio Auzitegiaren pareko erakundea), Federazioko Botere Judizialak (Espainiako Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren pareko erakundea) eta Hauteskunde Auzitegiak batez ere gardentasunari eta bere helmenari buruzko jardunaldi batzuk antolatu zituzten azaroaren 26an eta 27an, baina hitzaldi bat gorde zioten Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari. Zuzendariaren hitzaldia datu babesari eta esparru judizialari buruzko izan zen. Ordu eta erdi iraun zuen eta Mexiko Distrito Federaleko Kongresuaren egoitzan egin zen.

Biltzarraren antolatzaileek ordaindu zituzten bidaia eta gainontzeko gastu guztiak. Beraz, erakunde honek ez zuen gasturik izan.

Biltzarrean ia mila pertsona egon ziren eta Mexikoko komunikabideetan asko aipatu zuten.

- ***Datu babesari buruzko hitzaldia NagusiKZplus-en adinekoentzat, abenduaren 19an, Bilbaon.***

KZguneak programak proposatuta, Datuak babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak bi hitzaldi eman zituen jubilatuen elkarteei zuzenduta. Hitzaldien xedea zen Internetarako sarbideari buruzko, sare sozialei buruzko eta antzeko beste gai batzuei buruz 65 urtetik gorakoei eta jubilatuei zuzendutako ikastaroak nola bideratu asmatzen laguntzea. Prestakuntzaren barruan datu babesari buruzko modulu bat sartzeko asmoa zegoenez, saioak modulu horiek prestatzeko eta gizarteari aurkezteko aproposak izan ziren.

- ***"Arlo Publikoko Informazio Atzipena: etorkizuneko erregulazio bati buruz eztabaidatzeko zenbait elementu" Jardunaldia (Gaztelaniaz). Universitat Oberta de Catalunya eta Kataluniako Datuak Babesteko Agintaritzak (APDCAT) antolatua. Hitzaldia: "Datuak Babesteko Agintaritzen zeregina informazio atzipenari dagokionez".***



### 8.3. PRESTAKUNTZA JARDUERAK: IKASTAROAK

- Datu babesari buruzko ikastaroak Arrasateko Udalean (oinarrizkoa eta aurreratua).
- Datu babesari buruzko ikastaroa Bilbaoko Justizia Administrazioako langileei, Donostian eta Bilbaon.
- Datu babesari buruzko ikastaroak Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko langileei.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU) Udako Ikastaroetako topaketak: Gardentasuna eta datu babesa, posible al da oreka?



## 9. BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA

### 9.1. DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAN PARTE HARTZEA

DBEBren zuzendaria, AEPDren Kontseilu Aholku-emailearen kidea da, eta 2012ko uztailaren 19ko eta abenduaren 17ko bileretan hartu zuen parte. Bileretan Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Jardueren Txostenak aurkeztu zituzten.

### 9.2. LANKIDETZA DATUAK BABESTEKO ESTATUKO BESTE AGENTZIA BATZUEKIN

#### Zuzendarien taldea

Aurten ez da bilerarik egin.

#### Idazkaritza nagusien taldea

Aurten ez da bilerarik egin.

#### Lege aholkularitzak koordinatzeko taldea

Bilera 2012ko martxoaren 6an izan zen bideokonferentzia bidez izan zen. Hona gai-zerrenda:

- Profesionalen elkargoetako kuoten fitxategien izaera.
- Zuzentarauaren 7 f) artikulua zuzeneko eraginean izan dituen ondorioak 2011ko azaroaren 24ko Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak eta 2012ko otsailaren 8ko Auzitegi Gorenaren epaiak.
- Europar Batasuneko datu babesari buruzko lege erreforma (Erregelamendua eta Zuzentaraua).
  - Horrelako ekimenak izapidetzean agentziak informatzea eta agentzien parte hartzea.
  - Espainiako datu babesari buruzko egungo araudiaren egoera, Europako araudi berria onartuz gero.
  - Ondorio nagusiak agentzien jarduerarako.
  - Egutegia eta hartu beharreko neurriak Europako araudia benetan onartzen bada.
- Datuak babesteko kontrol agintaritzen eskumena hildako pertsona baten historia klinikoa atzitzeko eskubidea (Pazientearen autonomiari buruzko



Legearen 18.4 artikulua) babesteko eta DBLO garatzen duen Errege Dekretuaren 2.4 artikuluan aipatzen den hildakoen datuak ezerezteko eskubidea babesteko.

### **Ikuskaritza taldea**

Bilera 2012ko ekainaren 12an izan zen. Hona gai-zerrenda:

- Auzitegien fitxategiei buruzko 2011ko abenduaren 2ko Auzitegi Gorenaren Epaia aztertzea.
- Administrazio publikoen erantzukizuna bertako funtzionarioek euren buruen onurarako edo erakundetik kanpokoen onurarako izaten dituzten portaerengatik.
- Agentziek, esparru publikoko erakundeen jardute ezaren aurrean jarduteko dituzten aukerak aztertzea, erakunde publikoei jarduteko berariaz eskatzen zaienean eta zehapen-ebazpenean ezarritako neurri zuzentzaileak ez dituztenean hartzen edo eskubideak babesteko prozedura batean onetsitako AZETA eskubideak ez dituztenean gauzatzen. Kasu horietan, behar izanez gero, erabil daitezkeen jardute-mekanismoak planteatzea.
- Ondoko gaiei buruzko Auzitegi Nazionalaren 2012/04/11ko epaia aztertzea (APDCM):
  - Adierazpen eta informazio askatasunaren eta datu babesaren aurkakotasuna
  - Ukituen izenak, irudiak eta grabazioak erabiltzea baimenik gabe.
  - Zuzentarauaren 7 f) artikulua ezarpen egokia eta Europako Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak berriki emandako ebazpenen eraginez sortu den testuinguru berriak ekarri duten interpretazio berriaren argitan aztertzea gai hau.
  - Historia klinikoa atzitzea. Datuak babesteko agentziek eskubideak osorik betetzen ez badira, hori kontrolatzeko dituzten mugak.
- Benetako kasu bat bateratu aztertzea: aldez aurreko informazio jarduerak artxibatze deklaratu den kasu bat, baina salatutako erakundeari eskatzen zaio neurri zuzentzaileak hartzeko, inplementatutako jardute protokoloa dela eta.
- "Udal taldeen" jarduera ixtea eta ondorioak eztabaidatzea.
  - DBLOren ezarpen esparrua eta ez betetzeen jarraipena.
  - Alderdi politikoek URLa erabiliz egindako arau-haustea:



- Alderdi politiko batena.
- Udal talde batentzat gordetako gunen —URLaren barruan— bat erabiliz.

### **Datuak babesteko Europako erregelamendu-proiektua aztertze lan taldea**

Bilera 2012ko maiatzaren 8an izan zen, bideo konferentziaz. Hona gai-zerrenda:

- Izapidetze egoerari buruzko informazioa jasotzea.
- Erregelamenduaren izapidetze prozeduran parte hartzeko aukerak izatea, batez ere ustez arazotsutzat jo daitezkeen gaietan.
- Araudi berriari ekinez gero, burutzea komeniko liratekeen jarduerak aztertzea. Hona:
  - Erakunde eskumendunak zein arau erako jarduerak burutu behar dituzten (Espainiako egungo araudia egokitu ala bertan behera utzi, eta erregelamendu berriak estatu kideei garatzeko agintzen dizkien alderdiak garatzea).
  - Agentzien arteko koordinazio lana egitea, arauan argi ez dauden gaiak dagokienez.

### **Erregistro eta Teknologian Berrien Taldea**

Datuak babesteko lau agentziak koordinatzen dituen Erregistro eta Teknologian Berrien Taldeak bilera bakarra egin du aurten.

### **9.3. ALIANTZA ESTRATEGIKOAK**

- Hitzarmena Eusko Jaurjaritzarekin: Addenda 2012. Eusko Jaurjaritza - Lehendakaritza.
- Hitzarmena, Mexikoko Datuak Babesteko eta Informazio Publikoa Atzitzeko Institutu Federalarekin (IFAI).
- Uruguako Ordezkaritza baten bisita (otsailaren 27-29).
- Rio de Janeiroko Justizia Ministerioko prokuradore Nagusiaren bisita (apirilaren 2a).



